

Udazkeneko Txapelketa 2024-2025

ARETO FUTBOLA

Lekua: Unibertsitateko Kiroldegiko kantxa – Ctra. de Leioa a Unbe nº 6- 48950 Leioa-Erandio (Bizkaia)

TXAPELKETAREN ARAUAK

- Taldeek **garaiz** iritsi behar dute instalazioetara. Denek batera sartu behar dute instalazioetara, gutxienez partida hasi baino **15 minutu** lehenago.
Partida hasteko ordua ezingo da 10 minutu baino gehiago atzeratu. Denbora tarte hori igaro ondoren, aurkeztu ez den taldeari galdutzat emango zaio partida. Debeekatuta dago erretzea eta edari alkoholodunak eramatea.
Partida bat hasteko, **taldeek 5 jokalaririk izan beharko dituzte gutxienez (4 jokalaririk eta atezain bat izan beharko ditu gutxienez), eta gehienez 10)**
- Instalaziora iristean **derrigorrezkoa da arbitro taldeari NANA eta Unibertsitateko txartela aurkeztea.** Aurkezten ez dituztenek **EZINGO DUTE TXAPELKETAKO EGUNETAN JOKATU.**
- Jantzia:** Atezainen kamiseta bi taldeek daramatena ez bezalakoa izango da. Arbitroen lana errazteko, taldeek eraman behar izango dituzte 2 kamiseta, bat argia eta beste bat iluna.
- DERRIGORREZKOA DA** talde bakoitzak bere baloia eramatea, berotzeko, eta beharrezkoa balitz, partida jokatzeko.
- Partiden iraupena: Multzoka Fasea:** izena eman duten taldeak multzoka banatuta egongo dira. Multzo bakoitzean liga bat jokatuko da 15 minutuko denbora 1, etenik gabe, **multzo bakoitzeko lehenengoa sailkatuko da**, geroago txapelaldun arteko liga bat jokatuko partiduak 15 minutuko denbora batekoak izango dira. Azken minutuan, epaileak luzapena egingo den abisatuko du. **Denborak aldatu daitezke talde kopuruaren arabera.**
Sailkapena: 3 puntu irabazleari eta puntu 1 berdinketa gertatuz gero. Berdinketa gertatzen denean, talde bakoitzak 3 jaurtiketa egingo ditu, txandaka. Bi taldeek hiru jaurtiketak egin eta gol kopuru bera sartzen badute edo golik sartzen ez badute, jaurtiketak egiten jarraituko dute ordena berari jarraituz, harik eta talde batek besteak baino gol bat gehiago sartzen duen arte jaurtiketa kopuru bera egingo ondoren.
- Arbitroa** ez da aitzakia partida ez jokatzeke. Ordezkaririk ados jarriko dira arbitratzeko, eta emaitza balioduna izango da sailkapenerako. Gainera, partidara bertaratutako izen-abizenak, NANA eta partidaren emaitza idatzi beharko dira orri batean, eta Kirol Zerbitzuari bidali (**bi-kirolak@ehu.eus** helbide elektronikora edo eskura). Talde irabazleak emaitza Kirol Zerbitzuari helaraztea, partida amaitu eta 24 orduko epean. Beranduago jakinarazten bazaio emaitza, arrazoirik eman gabe, partida galdutzat eman dakieke bi taldeei.
- Talde bat ez bada partida batera agertzen, galdutzat emango zaio partida, 6-0 emaitzarekin, eta, horrez gain, puntuak eta kredituak galduko ditu (Lehiaketa Batzordeak berretsiko du zehapena). Bigarren aldiz gertatuz gero, txapelketatik kanpo geldituko da taldea.
- Jokalariek ezin dute eraman aurkako jokalaririk batentzat arriskutsuak izan daitekeen objekturik (kateak, erlojuak, eraztunak, belarritakoak, piercingak...). Ezin badira kendu, esparatapuarekin edo antzeko zerbaitekin estaliko dira.
- Partida amaitzean, taldeek utzi egingo dute jokalekua. Partidan zehar, unean bertan hor egotea dagokien jokalaririk bakarrik egon ahal izango dira jokalekuan. Arbitroak jokalaririk horiei baino ezingo dizkie zehapenak ezarri. Arau hori kanporatutako jokalarientzat ere izango da.
- Kredituak aitortzeko eskaera:** banan-banan egingo da. Hauxe da esteka: <https://www.ehu.eus/eu/web/ehukirola/prestakuntza/kredituak-kirolaren-arabera-aitortzea> Unibertsitateko Txapelketak guztiak bukatuta.
- OSO GARRANTZITSUA:** partida amaitzean, talde bakoitzeko kapitainak edo ordezkaririk partida bakoitzaren **akta berrikusi eta sinatu** behar du derrigor, emaitza eta jokalaririk zerrenda egiaztatu ahal izateko. Idatzi horren aurka **alegazioa** aurkeztu ahal izango da, idatziz. Partida amaitu eta 20 minutura edozer gertatuz gero, **ez da aintzat hartuko.**

12. **Lehiaketa Antolatzeko eta Kontrolatzeko Batzordeak eskubidea izango du norbaiti zehapena ezarri eta txapelketatik kanporatzeko, kirol instalazioetan kirolari ez dagozkion jarrera eta gizalegezkoa ez den jarrera desegokia izanez gero. ANTOLAKUNTZAK ESKUBIDEA DU TXAPELKETAN ZEHAR ARAUAK ALDATZEKO, BERTAN SORTZEN DIREN EGOERETARA EGOKITUZ. PARTE HARTZAILEEK, IZENA EMATEAN, ARAU HAUEK ONARTZEN DITUZTE ETA BEHARTUTA DAUDE ARAUOK BETETZERA.**

BIZKAIKO CAMPUSA
CAMPUS DE BIZKAIA
Polideportivo Universitario
48940 Leioa (Bizkaia)